



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

GIDA MASTER AMAIERAKO LANA

**Gizarte eta hezkuntzaren
eremuko ikerketa masterra**

www.ehu.eus



AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. XEDEA ETA HELBURUAK | 3 |
| 2. MASTER AMAIERAKO LANAREN GAIA, IKERKETA LERROAK ETA GAIA AUKERATZEKO PROZEDURA | 4 |
| 3. MASTER AMAIERAKO LANAREN EGITURA ETA LANA IDAZTEKO ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK | 7 |
| 4. MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK | 9 |
| 5. MASTER AMAIERAKO LANA DEFENDATZEKO BETE BEHARREKOAK | 11 |
| 6. MASTER AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIOA ETA DEFENTSA | 12 |
| 7. ERANSKINAK | 14 |

1.- XEDEA ETA HELBURUAK

Master Amaierako Lana (aurrerantzean MAL), jarduera akademikoetako bat da, banaka egin beharrekoa, eta 12 ECTS kreditu ditu (300 ordu). Ikasleak ikerketan hasteko lan bat egin behar du esleitzen zaion masterreko irakasle baten gidaritzapean: MAL-eko zuzendaria.

MALak ikasleak masterreko irakasgaietan landutako ezagutza eta gaitasunak lortu dituela frogatzeko helburua du, eta ikasketa planean zehaztutako gaitasunak eta ezagutzak islatu behar ditu. Era berean, MALari buruzko arautegiari jarraituz, froga hau gainditzeak esan nahi du ikaslea prest dagoela hezkuntza arloko ikerketa egiten hasteko.

Ikasleak masterrean aritu bitartean garatu behar dituen gaitasunak ondokoak dira:

514.- Gizarte eta hezkuntza eremuren batean datu garrantzitsuak bildu eta interpretatu, arazo pedagogikoei buruzko iritzi oinarrituak emateko.

515.- Informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak transmititu adituei nahiz aditu ez direnei.

516.- Ikerketa arloko prestakuntzan jarraitzeko ikaskuntza trebetasunak garatu.

MALa banaka egin behar da eta horregatik ezin izango dute, ezelan ere, egile batek baino gehiagok sinatu. Bestalde, jatorrizkoa izan behar da, eta indarreko araudiari jarraituz, MALa, jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da; beraz, lanaren kopia aurkeztu beharko da, Masterreko Idazkaritzan gorde eta babes dezaten, eta formatu digitalean kontsultak egin ahal izango dira Masterrak berak adierazitako lekuetan.

Azkenik, lan honek plan osoa biltzen duenez, ezin izango da lana aurkeztu ez ebaluatu harik eta masterreko ikasketa planean jasotako gainerako irakasgai guztien kredituak gainditu arte.

2.- MASTER AMAIERAKO LANAREN GAIA, IKERKETA LERROAK ETA GAIA AUKERATZEKO PROZEDURA

MALaren helburua da ikasleak lan bat egitea horren bidez erakusteko, batetik, irakasgaietan lortutako ezagutza eta gaitasunak, eta, bestetik, hezkuntza eta gizarte arloko ikerketa gai bat ahoz eta idatziz azaltzeko gaitasuna daukala.

Irakasgaien zerrenda luzea denez eta ikasketen egitura zabala, Batzorde Akademikoak ikerketa lerro batzuk zehaztu ditu, hartara ikasleak eskaria egin dezan bere MALa bideratzeko eta proposamena adosteko MALerako aukeratu duen zuzendariarekin.

Ikerketa lerroak hiru zutabe handitan banatu dira, masterreko irakasleek egindako ekarpenei jarraituz.

1.- Ikastetxeak eta Gizarte testuinguruak

- 📁 Haurren eta gazteen eskubideen aldeko programen eta politiken diseinua, garapena eta ebaluazioa.
- 📁 Hezkuntza inklusioko politiken eta programen garapen eta ebaluazioa.
- 📁 Hezkuntza aldaketa Goi-Mailako Hezkuntzan.
- 📁 Hezkuntza berrikuntza (curriculumekoa, metodologikoa eta antolakuntzazkoa).
- 📁 Kulturartekotasunaren trataeran hezkuntza eta gizarte eremuetan.
- 📁 Hezkuntzaren historia Euskal Herrian.
- 📁 Diseinu mistoen erabilera (kuantitatibo-kualitatiboak) hezkuntzako ikerketa eta ebaluazioan.
- 📁 Gaitasunak lantzeko proiektu curricularren diseinua eta gauzatzea.
- 📁 Oinarrizko gaitasunak garatzeko European dauden politiken analisi konparatiboa.
- 📁 Hezkuntza eskubidea eta hezkuntza sistemak.
- 📁 Generoarengatiko bazterkeria gainditzeko ikerkuntza hezkuntza ingurune formal eta ez-formalean.

- 📁 Autonomia eta tratu onak; eskubideak, erantzukizuna eta parte hartzea.
- 📁 DBH, batxilergo eta lanbide heziketako ikasleen proiektu profesionalak eta bizitza proiektuak, generoaren eta aukera berdintasunaren ikuspegiak oinarri hartuta.

2.- Lanbide prestakuntza hezkuntzaren eremuan

- 📁 Gizarte eta hezkuntza inklusiboaren arloan parte hartzen duten profesionalen prestakuntza eta profesionalen sareak.
- 📁 Ikerkuntza/ekintza parte-hartzaileko prozesuak gizarte eta hezkuntza eremuetan.
- 📁 Sormena, taldeen dinamizazioa eta gatazken kudeaketa.
- 📁 Lanbide garapena eta irakasle identitatea.
- 📁 Irakasle lanbidean indukzio eta promozio politikak.
- 📁 Hezkuntza erakundeen garapen instituzionala.
- 📁 Hezkuntza agenteen etengabeko prestakuntza.
- 📁 Eskola eta lan munduaren arteko trantsizioan esku hartzea, ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan.

3.- Gizarte eta hezkuntza eremuko agente eta taldeak

- 📁 Gizarte eta hezkuntza zerbitzuen antolaketa.
- 📁 Nerabe-gaztaroen arloko esku-hartze programen ikerketa.
- 📁 Hezkuntza inklusiboa: eskusio/inklusio prozesuak talde zaugarrien kasuan.
- 📁 Haurtzaroaren historia, museologia eta hezkuntza patrimonioaren ikerketa.
- 📁 Haurren eskubideak, ikuspegi teoriko eta aplikatua.
- 📁 Aldaketa sozialak eta instituzionalak.
- 📁 Ezgaitasun intelektuala: zerbitzuak, bizi kalitatea.
- 📁 Gurasotasuna eta garapen sozio-pertsonala arriskuko egoeretan eta gizarte babesgabetasunen; gurasoen prestakuntza programen diseinua, garapena eta ebaluazioa.
- 📁 Enplegua eta lanbidea ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan.

Hiru gai multzo nagusi horiek laburbiltzen dituzte masterrean parte hartzen duten irakasleen ikerketa lerroak. Ikasturte akademiko guztietan iraila-urria bitartean ikerketa taldeek euren lanaren aurkezpena egingo dute, ikasleek euren aldetik interesetan bategiteak eta MALerako gai espezifikoak hauteman dezaten.

Ikaslea ikerketarako gai posiblea zehazten joango da, nahi bada bere mentorearen laguntzaz, eta bere MALerako zuzendari egokia izan daitekeen irakaslearekin harremanetan jarri ahal izango da. Masterreko Batzorde Akademikoaren ardurak izango dira MALerako gaia hautatzen zalantzak dituzten ikasleei orientazioa ematea eta irakasleen artean MALen zuzendaritza lanak modu orekatuan banatzea. Abenduaren bukaeran, Masterreko Batzorde Akademikoak MALe-n zuzendarien behin-behineko esleipena eginda edukiko du.

Ikaslearen eta zuzendariaren arteko lankidetzak behin adostuta, ikerketa lerro nagusia aukeratu eta, biak ados jarrita, gai zehatza finkatuko dute. Horrela, masterreko ikasleak ikerketaren arloan bere bidea egingo du irakaslearen ikerketa espezialitatearen eremuan. Adostasun hori *Master Amaierako Lanaren zuzendaritza eta deskribapena* izeneko 1. Eranskinean jasoko da. Agiri horretan ondokoak zehaztu beharko dira: ikaslearen datu akademiko eta pertsonalak, lanaren gutxi gorabeherako izenburua, 15 lerro inguruko laburpena, lana nola egingo duen eta nola garatuko duen azalduz, bibliografia garrantzitsua, ikaslearen jatorrizko sinadura eta irakaslearen sinadura oniritzia emanez, eta bi aldeek lan hori aurrera eramateko daukaten konpromisoa.

Ikaslearen betebeharra da 1. Eranskinaren kopia eskaneatua bidaltzea Masterreko Idazkaritzara, horretarako zehaztutako epean.

3.- MASTER AMAIERAKO LANAREN EGITURA ETA LANA IDATZI ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

MALak egitura egonkor eta nahiko zurruna dauka bai lana antolatzeko eran bai lana aurkezteko moduan; ikasleak, zuzendariaren laguntzarekin, bete egin beharko du hori lana errazte aldera.

MALaren diseinurako eta lana idazteko, ondokoak dira lana egituratzeko jarraibideak:

- ☞ **Azala:** masterraren izena, espezialitatea, Master Amaierako Lanaren izenburua, egilea (izena eta bi abizen), lanaren zuzendaria eta deialdia (3. eranskina). Atzeko aldea zuri.
- ☞ **Laburpena:** 200-300 hitzeko laburpena lana idazteko erabiliko den hizkuntza berean, eta ingeleseko itzulpena (Abstract-a). Bakoitian hasi; behar izanez gero, atzeko aldea zuri.
- ☞ **Aurkibidea orrialdeak zehaztuta.** Ez da zenbatu behar ez azala, ez aurkibidea. Bakoitian hasi; behar izanez gero, atzeko aldea zuri.
- ☞ **Sarrera:** motibazioa, helburuak, lanaren egitura. Helburua/Xedea. Lortu nahi diren helburuen nondik norakoak edo lanak oinarri duen arazoa. Gaiaren interesa eta egokitasuna. Irakasle lanbidearekin daukan lotura. MALaren aurkezpen orokorra, atal banaketaren ikuspegi osoa emanda. Bakoitian hasi.
- ☞ **Gaiaren egungo egoera eta oinarri teorikoak.** Aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar.
- ☞ **Metodologia.** Ikerketako galderak. Hasierako hipotesiak. Datuak biltzeko tresnak. (kasuan kasukoak). Aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar.
- ☞ **Analisia eta interpretazioa.** Lortutako emaitzen analisia eta interpretazioa, edo, egoki bada, emaitza horien erabilera praktikoa. Aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar.
- ☞ **Ondorioak:** lanaren edukirik garrantzitsuenen aurkezpena, mugak eta etorkizunean, beste lan batzuk egitean, izan ditzakeen inplikazioak. Aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar.
- ☞ **Esker ona:** esker onik eman behar izanez gero, paragrafo labur batean bildu. Aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar.
- ☞ **Bibliografia:** orden alfabetikoan jasota eta APA arauari jarraituta. (7. Arg.). Aurrekoaren segituan; ez da orri berrian hasi behar.

📄 **Eranskinak:** lanaren amaieran bilduko dira, egoki iritziz gero (erabilitako galdera sortak, ikasleen lan laginak, materialak, horiei buruzko informazioa eta abar). Bakoitian hasi.

MALaren erredakzio eta aurkezpenean, hauek dira bete behar diren jarraibide nagusiak:

📄 **Hizkuntza:** MALa gaztelaniaz edo euskaraz idatzi ahal izango da; ikasleak berak aukeratuko du hizkuntza zuzendariarekin ados jarrita.

📄 **Lanak bertsio digitalean aurkeztuko dira, pdf formatuan.** Ikerketaren ezaugarriak edo frogen ezaugarriak kontuan hartuta beharrezkoa bada, eranskinak gehitu ahal izango dira beste euskarri fisiko batzuetan

📄 **Lanak, gutxien dela, 50 orri izango ditu eta, gehienez, 75 (75.000-125.000 karaktere espazioak kontuan hartu gabe).**

📄 **Orriak zenbakitu egin behar dira (azala eta aurkibidea ez dira zenbakitu behar).**

📄 **Letra tipoa eta tamaina:** EHU Serif Euskaraz eta EHU Sans gaztelaniaz, 11 puntu.

📄 **Lerroarte:** 1,5; lerro zuririk utzi gabe paragrafoen artean. Lerro zuria utziko da izenburu baten eta lehenengo paragrafoaren artean, eta aipamen luzea egiteko erabili den aparteko paragrafoaren hasiera eta amaieran (horrelakorik dagoenean).

📄 **Lerrokatze justifikatua** testu osoan, baita oin oharretan ere.

📄 **Marjinak:** 3 zm goiko eta ezkerreko ertzean; 2,5 zm beheko eta eskuineko ertzean. Testu prozesatzaileak berez dituenak ere erabil daitezke: 2,54 zm lau ertzetarako.

📄 **Koska jarriko da (0,5-1,25) paragrafoaren hasieran eta aipamen luzeetan.**

📄 **Letra etzana erabiliko da** liburuen eta beste agiri batzuen izenburuetarako, bai eta beste hizkuntza batzuetan idatzitako terminoetarako ere.

📄 **Azpimarra erabiliko da** atalen izenburuak eta goiburuak nabarmentzeko.

📄 **Letra lodia izenburuetarako.**

📄 **Izenburuak zenbakituta joango dira** edukia hobeto ulertzeko. Letra etzana erabiliko da eta ezkerretara lerrokatuta egongo dira.

4.- MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARIAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

A) **Ikerketa lerroa zehaztea eta eskaintza egitea.** MALaren zuzendariak egin beharreko lehenengo zeregina ikerketa lerroa zehaztea da. Bere jakintza arloa eta ikerketan eta irakaskuntzaren arloan izan duen esperientzia kontuan hartuta, masterrean inplikaturako ikerketa taldeen aurkezpen errondan parte hartuko du talde bakoitzak duen iker arlo zehatza agertzeko. Irakasleren batek parte hartuko ez balu aitortutako ikerketa talderen batean (Eusko Jaurlaritzak edo EHUK aitortutako deialdiak), baina ikerketa proiekturen baten edo transferentzia hitzarmenen baten partaidega balitz ikasleen aurrean azaltzeko aukera ere izango du beti ere honetarako ezarritako epean (iraila-urria).

MALerako gaia bilatzeko lana behin hasita eta bukatu arte, zuzendariaren eginkizunak, ikasleak egin beharreko lanari dagokionez, segidako hiru faseetan banatzen dira:

- ☞ **Aldez aurretiko fasea.** Ikasleari proposatzea gizarte eta hezkuntza eremuan garrantzitsuak diren arazo eta gaiak, ikasketetan lortutako gaitasunak erabilia arloan sakontzeko aukera emango diotenak. Fase honetan, eskaintako ikerketa lerroei buruzko informazio eskatzen duten ikasle guztiei erantzungo zaie, eta fasea bukatuko da *Master Amaierako Lanaren zuzendaritza eta deskribapena* izeneko 1. Eranskina sinatu eta aurkezten denean. Agiri hori aurkeztean eta onartzean erabat finkatuta geratuko da irakasle eta ikaslearen arteko lankidetzaga
- ☞ **Lana egiteko fasea.** Fase honen hasieran komenigarria da irakasleak jakitea zein izango den bere zuzendaritzapeko ikasle bakoitzak lana egiteko izango duen kronograma, hartara jakin ahal izango baitu ikaslea zein heinean ari den emaitzak lortzen. Fase honetan egin behar da lanik handiena. Zuzendariak ikaslearen lana gidatu beharko du eta jarraipena egin; egutegia zorrotz bete beharko du eta betearazi beharko dio ikasleari, egin beharrekoak egiteko eta aurkeztu beharrekoak aurkezteko, eta bigarren lauhilekoan, aurrez aurreko hiru tutoretzaga egin beharko ditu gutxienez. Hiru tutoretzaga horiek fase honetan zehaztuko den kronograman

jasota ageri beharko dira. Fase hau amaituko da ikasleak master amaierako lana ematen dioenean zuzendariari.

📄 **Azken fasea.** MALa kalifikatzea (gai edo ez gai) eta defentsarako prest dagoen erabakitzea, horretarako zehaztutako epearen barruan. Zuzendariaren ustez MALa defentsa egiteko moduan badago, ikasleari *MALaren egokitasunari buruzko txostena*. 2. Eranskina beteta emango dio ikasleari, defentsa prestatzen has dadin. Zuzendariak eranskin horretan, labur, MALaren kalitatea arrazoituko du eta adieraziko du defentsarako prest dagoen edo ez. Agiri horrek jatorrizko sinadurak izan beharko ditu eta Masterreko Idazkaritzara bidali beharko da kopia digitala.

Zuzendariaren ustez lana ez badago prest defentsarako, berdin-berdin bete beharko du 2. eranskina eta bertan bere erabakia arrazoitu; horrelakoetan, mezu ofiziala bidali beharko du Masterreko Idazkaritzara, agiri horren kopia digitala erantsita (ikasleari mezuaren kopia (cc) bidali beharko dio).

Fase hau amaitzen da MALa defentsarako prest dagoela jasotzen duen txostena aurkezten denean. Ezin izango da MALaren defentsa egin zuzendariaren aldeko txostena izan gabe.

Ikaslearekin egin beharreko lana behin bukatuta, zuzendariaren lanetako bat izango da ebaluazio eta kalifikazio prozesuaren jarraipena egitea, bai berak gidatutako lanena, zein beste irakasle batzuek gidatutakoetan ere deitzen zaion tribunaletan parte hartuz.

B) MALa defenditu aurretik ebaluazio txostena egitea. Zuzendariak epaimahaikoei ikaslearen lana eta 3. Eranskina: *MALaren Zuzendariak egindako ebaluazio txostena* eman beharko dizkie. Txosten horretan MALaren kalitateari buruzko iritzia arrazoituko du, baita esanguratsua irizten zaion informazio guztia gehitu ere. Halaber ikasleak bere ustez merezi duen zenbakizko kalifikazioa sartu dezake, baina beti ere orientazio moduan eta aldeztatik den heinean kontuan hartu gabe ahozko aurkezpen eta defentsa publikoari buruzkorik.

C) Epaimahaiei laguntza ematea eta lanak kalifikatzea. Epaimahai bakoitza hiru kidez osatua egongo da; beraz, lanaren zuzendariak berak zuzendutako lan kopurua halako hiru epaitzera deitu ahal zaio. MALen defentsak egiten diren astea masterreko eskolaldiaren barruan daudenez,

masterreko irakasle guztiak egon behar dute gertu epaimahaietan euren lana betetzeko. Epaimahaien osaera eta datak denbora nahikoaz jakinaraziko dira.

Oro har, honako hauek dira zuzendariaren eginkizunak: ikasleak proposatutako gaien egokitasuna balioetsi, haren autonomia eta ekimena bultzatuz; lanaren aurrerapenak berrikustea eta beharrezko jarraibideak eta orientabideak ematea, programan eskatzen diren gutxieneko kalitate-estandar akademikoak bete daitezen.

Ez dira zuzendariaren eginkizunak: ikaslearentzat bilaketa bibliografikoak egitea; ikasleari lan-erritmoak eta entrega-epeak gogoraraztea; zuzentze ortografikoak, idaztekoak edo formatuzkoak egitea; ikasleak entregatutako dokumentuetan plagio-arazoren bat egon daitekeen egiaztatzeaz arduratzea; edo zirriborroak onartzea ikasleak behar besteko elaborazio-mailarik izan gabe. Azken horiek lanaren egilearen erantzukizunak dira.

5.- MASTER AMAIERAKO LANA DEFENDATZEKO BETE BEHARREKOAK

Behin aipatutako lanak behin eginda, MALa defenditzeko prozedura ekingo zaio. Defentsa jendurrekoa izango da, epaimahai baten aurrean. Defentsa egiteko, baina, zenbait baldintza bete behar dira, eta aipatu ditugun arren, hona hemen baldintzok laburbilduta:

- 📄 Gainditua izatea masterreko ikasketa planeko gainerako irakasgaietako kreditu guztiak.
- 📄 Zuzendariaren Masterreko Amaierako Lanaren aldeko txostena (2. Eranskina) idazkaritzan aurkeztuta izatea.
- 📄 Ikasleak masterreko idazkaritzan aurkeztuta izatea lanaren kopia bat PDF-an. Zuzendariari kopia bat eman beharko dio PDF formatuan. Egutegi ofizialean ezarritako epean, zuzendariak MALaren artxiboa bidaliko die epaimahaiko kideei, eta horrekin batera berak egindako ebaluazioa (3. Eranskina).

Ezin izango da lanaren defentsa egin hiru baldintza horiek bete gabe.

6.- MASTER AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIOA ETA DEFENTSA

Defentsa jendaurrekoa izango da eta masterra ematen den lekuan egingo da. Ekitaldiaren data denbora nahikoaz jakinaraziko da. Ikasleak behar dituen ikus-entzunezko ohiko baliabideak izango ditu eskura, eta ekitaldiak gutxienez 30 minutu eta gehienez 45 iraungo du.

Ondokoak dira ebaluaziorako erabiliko diren oinarrizko irizpideak (5. Eranskinean daude jasota):

- ✎ Egindako lanaren kalitatea eta zuzentasun akademikoa: helburu argiak, edukiaren garrantzia, metodologia eta bibliografia egokia, eta proposamena gauzatzeko aukerak.
- ✎ Berrikuntzarekin edo, egoki bada, ikerketarekin daukan konpromisoa.
- ✎ Ikaslearen inplikazioa lana egitean: masterreko gaien arteko lotura eta zein neurritan lortu dituen gaitasun profesionalak eta ikerketarakoak.
- ✎ Epaimahaiaren aurrean lana aurkeztea eta defendatzea: ikasleak komunikaziorako daukan trebetasuna.

MALa epaimahaiaren aurrean aurkeztuko da horretarako adierazitako epean, 4. Eranskineko protokoloari jarraituz.

Epaimahaiak hiru kide izango ditu masterreko beste irakasleen artetik aukeratuak; epaimahai honetatik kanpo geratuko da MALa zuzendu duen irakaslea. Ezinbesteko kasuetan eta behar bezala arrazoituta, izendatutako hiru kideetako birekin bakarrik osatu ahal izango da epaimahaia.

Ikasleak defentsa egin ondoren, kontuan hartuta epaimahaiak idatzitako lanei buruz duen iritzia eta zuzendariak berak proposatutako kalifikazioa, MALari nota jarriko zaio, 0etik 10era bitartekoa hamartar bat erabilia, eta kalifikazio kualitatiboa ere zehaztuko da.

- 0,0 – 4,9: Suspentsoa
- 5,0 – 6,9: Nahikoa
- 7,0 – 8,9: Oso ongi
- 9,0 – 10: Bikain

Kalifikazio akta epaimahaiko hiru kideek sinatuko dute; defentsa egin ostean epaimahaiak tarte bat izango du kalifikazioa erabakitzeko, eta jarraian jakinaraziko zaio ikasleari (5. Eranskineko protokoloari jarraituz).

MALa ezin izango da gainditutzat eman ikasleak ez badu adierazitako egunean eta eran defenditu.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARITZA
ETA DESKRIBAPENA
2. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANAREN EGOKITASUNARI
BURUZKO TXOSTENA
3. ERANSKINA. ZUZENDARIAK EGINIKO MASTER AMAIERAKO
LANAREN EBALUAZIO TXOSTENA
4. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANA DEFENDATZEKO
PROTOKOLOA
5. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANAREN DEFENTSA
EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
6. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANAREN AZALA
7. ERANSKINA. BIBLIOGRAFIA IDAZTEKO JARRAIBIDE LABURRA

1. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANAREN ZUZENDARITZA ETA DESKRIBAPENA

Izen-abizenak :

NAN.:

MALaren zuzendaria :

GUTXI GORABEHERAKO IZENBURUA

LABURPENA (Gehienez 15 lerro)

ONIRITZIA

Ikaslearen sinadura

Zuzendariaren sinadura

Donostia, 202_(e)ko.....aren.....(a)

2. ERANSKINA. MAL-AREN EGOKITASUNARI BURUZKO TXOSTENA

Izen-abizenak:

NAN:

MALaren zuzendaria

IZENBURUA

Baimena ematen dut defentsa egiteko.

Ez dut baimenik ematen defentsa egiteko.

TXOSTENA

ZUZENDARIAREN ERABAKIA.....

Sinadura

Donostia, 202_(e)ko.....aren.....(a)

1. ERANSKINA. ZUZENDARIAK EGINIKO MASTER AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIO TXOSTENA

1.- ZUZENDUTAKO LANAREN ALDERIK AZPIMARRAGARRIENAK

2.- PROZESUAN ZEHAR GAINDITU DIREN ZAILTASUNAK

3.- IKASLEAK JARRAITU DUEN PROZESUA

4. HOBETU BEHARREKO ALDERDIAK

Sinadura

Donostia, 202_(e)ko.....aren.....(a)

4. ERANSKINA. MALa DEFENDATZEKO OINARRIZKO PROTOKOLOA

.....
..... ikasleak *Gizarte eta Hezkuntza Eremuen Ikerketa* izeneko unibertsitate masterra lortzeko lana defendituko du. Lanaren izenburua da eta irakaslearen zuzendaritzapean egin du.

Ikasleak 15-20 minutu ditu lanaren ondorioak eta punturik garrantzitsuenak azaltzeko. Ondoren, epaimahaiko buruak galdera txanda bideratuko du eta epaimahaiko bi kideei emango die hitz egiteko aukera.

Amaitzeko, epaimahaiko buruak bukatutzat emango ditu hitz egiteko txandak eta galderak egingo dizkio ikasleari.

Galderak behin amaituta, epaimahaiburuak gelan daudenei irteteko eskatuko die eta epaimahaiak kalifikazioa zehaztuko du. Epaimahaiak lan hori bukatzean, bertaratuei gelan sartzeko aukera emango zaie eta ikasleari kalifikazio jakinaraziko zaio jendaurrean.

5. ERANSKINA. AHOZKO DEFENTSA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.

AHOZKO AURKEZPENA (10%)

| AHOZKO AURKEZPENA ETA EPAIMAHAIKAK EGINDAKO GALDEREI EMANDAKO ERANTZUNAK | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|
| - Protokolo akademikoko oinarritzko arauak (HASTEKO eta AMAITZEKO ERA) | | | | | |
| - Azalpen argiak | | | | | |
| - Hizkuntzaren erabilera zuzena | | | | | |
| - Sintesirako gaitasuna | | | | | |
| - Arrazoitzeko gaitasuna | | | | | |
| - Gaiaren arloko ezagupenak | | | | | |
| - Lan idatzian azaldutakoarekiko fideltasuna | | | | | |
| - Ekarpen berritzaileak eta sortzaileak (ereduak, irudiak, taulak...) | | | | | |
| - Ikus-entzunezkoen edo beste baliabide batzuen laguntza ahozko aurkezpenera egiteko | | | | | |
| | | | | | |

6. ERANSKINA. MASTER AMAIERAKO LANAREN AZALA



GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO EREMUEN IKERKETAKO UNIBERTSITATE MASTERRA MASTER AMAIERAKO LANA

"TITULOA"

EGILEA: (IZEN ABIZENAK)

NAN:

ZUZENDARIA: Izen abizenak

IKASTURTEA:

7. ERANSKINA BIBLIOGRAFIA IDAZTEKO JARRAIBIDE LABURRAK

Idazketan funtsezko bi aipu estilo daude:

(1) **erreferentzia bibliografikoak**: zerrenda luze eta alfabetikoki ordenatua dokumentuaren amaieran edo testuko aipu-ordenari dagokion zenbakizko segida jarraituz.

(2) **testuko aipuak**: parentesi arteko erreferentzia laburra paragrafo baten barruan edo orri-oineko ohar gisa erantsia. 7. ed. honetan bereizten dira: aipu narratiboak eta aipu parentetikoak.

(1) Erreferencias bibliografikoak

Liburua [argitalpen tokia beti kentzen da]

Herrán Gascón, A., Cortina Selva, M. y González Sánchez, I. (2006). *La muerte y su didáctica. Manual para educación infantil, primaria y secundaria*. Universitas.

Paperezko aldizkariko artikulua

Rodríguez, C. (2007). God's eye does not look at signs. Early development and semiotics. *Infancia y Aprendizaje*, 30(3), 343-374.

Aldizkari elektronikoko artikulua [DOI laburdura URL barruan sartzen da]

Herbst-Damn, K. L., y Kulik, J. A. (2005). Volunteer support, marital status, and the survival times of terminally ill patients. *Health Psychology*, 24, 225- 229. <http://doi.org/10.1037/0278-6133.24.2.225>

Liburuko kapitulua

Santiago, M. (2000). Reglas de acentuación. En E. Montolío, C. Figueras, M. Garachana, y M. Santiago (Eds.). *Manual práctico de escritura académica* (pp. 15-43). Ariel.

Kongresuko komunikazioa

Alonso-Vega, J., Álvarez-Iglesias, A., Ávila-Herrero, I., y Froxán-Parga, M. X. (2019, junio 18). Verbal interaction analysis of the intervention to an adult with severe behavioral problems [Presentación de póster]. XVI European Congress of Psychology, Moscú, Rusia. <https://doi.org/10.26226/morressier.5cf632bbaf72dec2b055469e>

Legeak

Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa. Boletín Oficial del Estado, núm. 295, de 10 de diciembre de 2013, pp. 97858 a 97921. <http://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>.

Sare sozialetan argitaratutakoa

Angulo, R. [@RobertoAnguloS]. (2019, 25 de octubre). *Índice de inclusión de personas con discapacidad de @SaldarriagaConc. Exclusión social y productiva (% de personas con discapacidad): Chocó: 55%* [gráfica e hipervínculo] [tuit]. Twitter. <https://bit.ly/2WzFs48>

Inprimatutako tesi doktora

Fernández González, A. (2010). *La inteligencia emocional como variable predictora de adaptación psicosocial en estudiantes de la Comunidad de Madrid* (Tesis doctoral). Universidad Autónoma de Madrid, Madrid.

Tesi doktral elektronikoa

Barreto, A. G. (2015). *Fundarvid: una contextualización de sus neologismos en la lengua de señas colombiana* [tesis de maestría, Universidad Nacional de Colombia]. Repositorio Institucional UN. <http://bit.ly/2JHcwSV>

Web

Peiró, P. (2019, 22 de noviembre). El 80% de los adolescentes del mundo no hace el ejercicio mínimo recomendado. EL PAÍS. https://elpais.com/elpais/2019/11/18/planeta_futuro/1574086350_697117.html

(2) Testu barruko aipamenak

Aipamenak honela txertatzen dira:

- Egile bat: (Trueba, 2018)
- Egile bi: (León eta Montero, 2015)
- Hirutik gorako egile: lehenegoa akarririk aipatzen da. Lehen egilea et al. Seco et al. (2016) aipamen narratiboan edo (Seco et al., 2020).

Hitzez hitzeko aipamenak

Egileaz eta dataz gain, orrialdea edo orri-tartea ere adierazi behar da.

Halakorik ez badago, informazioaren paragrafo zehatza aipatu beharko da:

- 40 hitz baino gutxiago: paragrafo baten barruko aipuak "eta" artean itxita.
- 40 hitz baino gehiago: paragrafo berria, 5 espazioko marjina gehigarriarekin eta komatxorik gabe.

Orrialde batetik ateratako testu-aipua: (Zofio, 2010, 14. or.)

Orrialde batetik baino gehiagotik ateratako testu-aipua: (Zofio, 2010, 140-141 or.)

Orri-zenbakirik gabeko testu-aipua: (Zofio, 2010, par. 3)

Informazio gehiago: normas.apa.org